Deialdia, oposizio bidez ITZULTZAILE-INTERPRETEA izateko lanpostu bat betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura.

1. PROBA – 1. ARIKETA – TEST MOTAKO GALDERAK

1. PROBA – 1. ARIKETA – TEST MOTAKO GALDERAK

1.- Zein mendetan nagusitu zen testu profanoetan *Les belles infidèles* izendatu izan den itzulpen eredua?

a) XV-XVI.

b) XVI-XVII.

c) XVII-XVIII.

d) XVIII-XIX.

2.- Nork utzi zuen agerian itzultzaile ikusezinaren mitoa?

a) Carbonell.

b) Hatim eta Mason.

c) Venuti.

d) Mayoral.

3.- Zein dira itzulpen akatsak Delisleren arabera?

a) Okerreko zentzua, kontrako zentzua, zentzugabekeria, gehikuntza, omisioa, hiperitzulpena, gainitzulpena, azpitzulpena.

b) Okerreko zentzua, alborakuntza, berreraikuntza, zentzugabekeria, berritzulpena, literalizazioa, segmentazioa, azpitzulpena.

c) Zentzugabekeria, gehiegikeria, gainegokitzapena, omisioa, azpinterpretazioa, sintetizazioa, lekualdaketa, ordezkapena.

d) Berrelkarketa, okerreko zentzua, birsorkuntza, hiperitzulpena, azpinterpretazioa, segmentazioa, desbideratzea, osagabetasuna.

4.- Non, noiz eta zer helbururekin hasi zen itzulpengintzari eta traduktologiari buruzko ikuspuntu feminista lantzen?

a) Frantzian, 90eko hamarkadan, testu feministen itzulpenak argitaratzeko.

b) Quebecen, 80ko eta 90eko hamarkadetan, itzultzailearen ikusezintasuna alde batera utzi eta manipulazioa defendatzeko.

c) Estatu Batuetan, 90eko hamarkadan, gizonen itzulpen literarioen kritika egiteko.

d) Eskandinavian, 80ko hamarkadan, itzulpengintzan heteropatriarkatuak duen eragina agerian uzteko.

5.- Polisistemen teoria. Nork garatu zuen?

a) Castro Vazquezek.

b) Steinerrek.

c) Schmidtek eta Komissarovek.

d) Even-Zoharrek eta Touryk.

6.- Joannes Leizarragaren *Testamentu Berria*ren gaineko esaldi hauetako zein da zuzena?

a) Leizarragak, euskalkien ugaritasunaz jabetuta, hitzaurrean aipatzen du euskaldun guztiek ulertzeko moduko euskara moldea erabili nahi izan duela.

b) Luteroren ildoari jarraituz, edukien fideltasuna bilatu beharrean, askatasun eta dinamismo handiko zentzuz zentzuko itzulpena egin zuen Leizarragak.

c) Inguruko erdaretan joera formalista nagusi zen arren, nahiago izan zuen latinezko mailegurik eta kultismorik ez erabili, herri xumeak ulertzeko moduko testua eman nahi baitzuen.

d) Leizarragak zuberera hartu zuen oinarritzat eta frantsesetik hartutako maileguekin osatu zuen. Horregatik esan ohi da euskal burgesiaren hizkuntza kultua izan zitekeena sortu zuela.

7.- Itzulpen estrategia feminista den aldetik, *hijacking*a (bahiketa) zer da?

a) Itzultzaileak testuan zuzenean esku hartuta hizkuntza eta kultura sistemen arteko desberdintasunak konpentsatzea.

b) Xede testuaren argitalpenean paratestuak txertatzea, testu horretan egin diren esku-hartzeen arrazoiak azaltzeko.

c) Itzultzaileak sorburu-testua bere egitea, neologismoak sartuz, aldaketak txertatuz, xede-testu feminista bat emateko.

d) Koegiletza; itzultzailea lankidetzan ari da idazlearekin testuan aldaketak egiteko, eta biak hartzen dira bukaerako emaitzaren egiletzat.

8.- Zein dira hizkera sexistari aurre egiteko teknika ohikoenak?

a) Ezabaketa, feminizazioa eta ordezkapena.

b) Neutralizazioa edo orokortzea eta feminizazioa edo zehaztapena.

c) Zuzenketa, esplizitazioa eta berridazketa.

d) Bikoizketa, ideologizazioa eta berrezarpena.

9.- Baliokidetasunarekin loturiko testu hauetako zein EZ da zuzena?

a) Itzulpenaren teoria feministentzat baliokidetasuna ez da funtsezkoa. Izan ere, marka sexistak ezabatzeko, hizkuntza patriarkalaren aurka egiteaz gain, itzulpenetan emakumeak (emakumezko itzultzaileak barne) ikusarazi behar direla aldarrikatzen dute.

b) Hatimen eta Masonen ustez, baliokidetasunaz hitz egitea baino erabilgarriagoa da egokitasunaz hitz egitea, kasuan kasuko itzulpen lanaren ezaugarrien eta erabiltzaileen beharren arabera epaitzen ahal delako.

c) Manipulazioaren eskolako teorikoek ez dute baliokidetasuna bilatzen. Aitzitik, itzulpena pentsaeran eragiteko tresna gisa ulertzen dute, eta zilegitzat jotzen dute itzulpena manipulatzea jatorrizko testuko alderdi ideologikoak eta botere harremanak aldatzeko.

d) Baliokidetasun kontzeptua alde batera utzita, itzulpenean diferentziak duen balioa aldarrikatzen du Venutik. Hala, itzulitako testuak atzerritartzearen eta itzultzaileak ikusaraztearen alde egiten du.

10.- Nor edo zer da *Filene-Finlay*?

a) Telefono mugikor bidezko interpretazio sistema.

b) Hermansekin batera, manipulazioaren teoriaren sortzailea.

c) XIX. mendeko belgikar itzultzaile famatua.

d) Nurenbergeko epaiketan erabili zen ekipo teknikoa.

11.- ***Itzulpena da A hizkuntzatik B hizkuntzara pasatzea errealitate bera adierazteko.*** **Norena da definizio hori?**

a) Vinay eta Darbelnet.

b) Nida eta Taber.

c) Nord.

d) Hatim eta Mason.

12.- ***Itzulpena da sorburu hizkuntzako mezuaren baliokide natural hurbilena ematea helburu hizkuntzan.*** **Norena da definizio hori?**

a) Vinay eta Darbelnet.

b) Nida eta Taber.

c) Nord.

d) Hatim eta Mason.

13.- Zizeronek...

a) Homeroren *Odisea* latinera itzuli zuen; hori da historiako lehen literatura itzulpena.

b) hitzez hitzeko itzulpenaren alde idatzi zuen.

c) ez dela hitzez hitz itzuli behar esan zuen.

d) Bibliaren *Vulgata* itzulpenaren gaineko gogoeta tekniko eta teorikoak egin zituen.

14.- Interpretazio teknika ohikoenak dira:

a) esan ostekoa, aldiberekoa, xuxurlaketa, ikusizkoa.

b) esan ostekoa, aldiberekoa, automatikoa, entzunezkoa.

c) aldiberekoa, entzunezkoa, xuxurlaketa, intuiziozkoa.

d) aldiberekoa, laburpenezkoa, xuxurlaketa, ikusizkoa.

15.- Aldibereko interpretazioa, noiz finkatu zen?

a) 1951n, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa sortzean.

b) 1945ean, Nazio Batuen Erakundea sortzean.

c) 1919ko Parisko Bake Konferentzian.

d) 1945-1946ko Nurenbergeko epaiketetan.

16.- Jean François Rozanek 1956an liburu bat argitaratu zuen eta 7 printzipioz osaturiko sistema bat proposatu. Zein zen gaia?

a) Aldibereko interpretaziorako trebakuntza.

b) Notaketa esan osteko interpretazioan.

c) Xuxurlaketaren printzipioak.

d) Interpretazioaren paradigma berria Nurenberg ondoren.

17.- Zer da Hobelex?

a) Zuzentzaile lexiko eta sintaktikoa.

b) Zuzentzaile lexiko eta ortografikoa.

c) Zuzentzaile terminologiko eta morfologikoa.

d) Zuzentzaile tipografiko eta morfosintaktikoa.

18.- Zein erakundek kudeatzen du *Sareko Euskal Gramatika*?

a) Deustuko Unibertsitateak.

b) Euskaltzaindiak.

c) Euskal Herriko Unibertsitateak.

d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.

19.- Euskalterm datu-basean ponderazio-markak erabiltzen dira. Zer esan nahi du termino baten ondoan "3" ageri bada?

a) Terminologia Batzordeak onartzen ez duen terminoa dela.

b) Termino onartua dela, ez, hala ere, lehenetsia, beste bat gomendatzen delako.

c) Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua dela, Terminologia Batzordearen onespenaren zain.

d) Termino normalizatu eta gomendatua dela.

20.- Zein da ElMAren xedea?

a) Euskarazko hiztegi eta datu-baseetako eduki nagusiak administrazio publikoetan hedatzea.

b) Unibertsitateko irakaskuntzako irakasle eta ikasleen hizkuntza-zalantzak argitzea.

c) Administraziorako euskarazko materialak argitaratu eta zabaltzea.

d) Unibertsitate aurreko ikasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortu, argitaratu eta zabaltzea.

21.- Zer arautzen du ISO 17100:2015 kalitate arauak?

a) Nazioarteko hitzaldietako interpretazio zerbitzuak.

b) Itzulpen-lan administratiboak.

c) Gutxiengoen hizkuntzetako itzulpen eta hizkuntza zerbitzuak.

d) Itzulpen zerbitzuen betekizunak.

22.- Zer da TMX formatua?

a) Segmentazio-erregelak trukatzeko formatu estandar bat.

b) Itzulpen-proiektuak trukatzeko formatu estandar bat.

c) Itzulpen-memoriak trukatzeko formatu estandar bat.

d) Datu-base terminologikoak trukatzeko formatu estandar bat.

23.- Itzulpengintza automatikoari dagokionez, distantzia handiko hizkuntzen artean zein da emaitza onena erdiesten ari den teknologia?

a) Erregela linguistikoetan oinarrituriko teknologia (RBMT).

b) Estatistikan oinarrituriko teknologia (SMT).

c) Neurona sareetan oinarritutako teknologia (NMT).

d) Corpus indizatuetan oinarrituriko teknologia (CIMT).

24.- Hauta ezazu hutsunea betetzeko falta den hitza:

"..... bat da hitz zerrenda alfabetikoa, alor bereko hitzak edo idazlan bateko hitzak definizioz edo oharrez hornituak jasotzen dituena".

a) Katalogo

b) Corpus

c) Lexikograma

d) Glosario

25.- Euskarazko hizkuntza-zalantzak argitzeko zerbitzuak dituzu jarraian. Horietako bat okerra da. Zein?

a) Ikasbil.

b) Dudanet.

c) Jagonet.

d) EIBZren kontsulta-zerbitzua.

26.- Zer da *Orotariko Euskal Hiztegia*?

a) Hiztegi arauemailea da, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*rekin batera.

b) Hiztegi ortografikoa da, gehienbat.

c) Hiztegi deskriptibo eta historikoa da.

d) *Hiztegi Batu Oinarridunaren* ondorengoa da.

27.- Euskaltzaindiko *Euskal Onomastikaren Datutegia*n, besteak beste, sartuta daude:

a) Pertsona-izenak, exonimoak eta toponimoak.

b) Deiturak, exonimoak eta hizkuntza-arauak.

c) Ponte-izenak, munduko kontinenteen izenak eta Europako hizkuntzak.

d) Gramatika-arauak, santuen izenak eta Euskal Herriko mendi nagusiak.

28.- Nork argitaratu zuen *Literatura Terminoen Hiztegia*?

a) Nafar Ateneoak.

b) Eusko Ikaskuntzak.

c) Euskal Idazleen Elkarteak.

d) Euskaltzaindiak.

29.- Zer da lokalizazioa?

a) Testuak itzultzea webguneetan eta tresna informatikoetan txertatzeko.

b) Itzulpen automatikoko sistemak garatzea.

c) Produktu edo zerbitzu digital bat egokitzea beste hizkuntza edo kultura batean baliatzeko.

d) Software librea tokian tokiko sistemetara bihurtzeko itzulpen metodo bat.

30.- Zer dira *gainera*, *are gehiago*, *beraz*, *orduan*, *aldiz*, *hala* eta *guztiz*?

a) Lokailuak: emendiozkoak, hautakariak, aurkaritzakoak.

b) Lokailuak: emendiozkoak, ondoriozkoak aurkaritzakoak.

c) Juntagailuak: emendiozkoak, ondoriozkoak, aurkaritzakoak.

d) Juntagailuak: emendiozkoak, hautakariak, aurkaritzakoak.

31.- Zer da sigla bat?

a) Hitzen hasierako letrez gainera, beste hitz batez edo batzuez osatzen den izena.

b) Zenbait kontzeptu idatziz labur adierazteko kode modura erabiltzen den izena.

c) Hitzen hasierako letrez osatzen den izena.

d) Hitz edo sintagma baten laburtzapen idatzia da.

32.- Zer motatako lokailuak dira *osterantzean* eta *bestenaz*?

a) Emendiozkoak.

b) Hautakariak.

c) Aurkaritzakoak.

d) Ondoriozkoak.

33. Hurrengo esaldi hauetako bat EZ da kalkotzat hartzen. Zein?

a) Faltan bota nituen gatza eta piperra atzoko bertso-saioan.

b) Jende anitza hurreratu zen herenegun Nafarroa Oinezera.

c) Liburuaren lehen frogak iritsi zaizkit goizean lantegira.

d) Valentziar laranja ekologikoak erosten ditut Landare kooperatiban.

34.- EIMAren estilo liburuaren arabera, esaldi hauetatik zeinek ditu sigla guztiak zuzen erabilita?

a) Nafarroako GKE-ek BEZa eta PFEZa ordaindu beharko dituzte Biltzarra egiteko, baina Euskaltel SAk ez die PCen alokairua kobratuko.

b) Nafarroako GKEk BEZa eta PFEZa ordaindu beharko dituzte Biltzarra egiteko, baina Euskaltel, S.A.k ez die PCen alokairua kobratuko.

c) Nafarroako GKE-ek BEZ eta PFEZ ordaindu beharko dituzte Biltzarra egiteko, baina Euskaltel SA-k ez die PCen alokairua kobratuko.

d) Nafarroako GKEek BEZa eta PFEZa ordaindu beharko dituzte Biltzarra egiteko, baina Euskaltel S.A.k ez die PC-en alokairua kobratuko.

35.- Esaldi hauetako bat EZ da zuzena. Zein?

a) Zure aitzinean duzun pilotaria Ezkurdia da.

b) Euskaldunek, asko maite dute mendia.

c) Greba egin duten gehienak ez dira gero manifestaziora joan.

d) Telebista sobera ikusteak kaltea besterik ez dio egin Mireni.

36.- Testuaren egokitzapen-prozeduretako bat da, egoeraren ezaugarrien arabera (solaskideen arteko harremanak, gaia...), hizketa modu jakin bat hautatzea. Nola esaten zaio horri?

a) Deixia.

b) Alborakuntza.

c) Modalizazioa.

d) Erregistroa.

37.- Euskaraz, esanahiaren arabera, zein dira perpaus motak?

a) Adierazpen, galde, aginte eta harridura perpausak.

b) Adierazpen, aurkaratze, aginte eta harridura perpausak.

c) Ezezko, galde, aginte eta harridura perpausak.

d) Adierazpen, galde, aginte eta ondorio perpausak.

38.- Zer puntuazio-marka jarri ohi da juntagailuaren aurretik, baldin eta juntaduran doazen osagaiak perpausak badira?

a) Puntua.

b) Koma.

c) Etenpuntuak.

d) Bi puntu.

39.- Bi puntuek erlazio kataforiko bat iragartzen dute; alegia...

a) perpausaren ideia amaitu dela adierazten dute.

b) aurretik idatzitako elementu bati egiten diote erreferentzia.

c) esaldia osatzera datorren osagaiaren seinaletzat har daitezke.

d) komarena baino eten luzeagoa adierazten dute.

40.- Zehar-marra edo barra etzana EZ da erabiltzen, besteak beste...

a) bi herrik bat egin ondoren sortutako herri berriaren izenean.

b) matematikan, zatikiak adierazteko.

c) hizkuntzalaritzan, fonemak adierazteko.

d) lege, dekretu eta xedapenen izenetako zenbakien artean.

41.- Aposizioa eta komunztadura. Ondoko esaldietako bat saihestekoa da. Zein?

a) Joseba Otondo Baztango alkateak hitza hartu zuen atzoko ekitaldian.

b) Gure ezagun bati, Mikel Barrenetxeri, itzulpen-saria eman diote berriki.

c) Unibertsitateko irakasle Jon Atxa dekanorde izendatu dute.

d) Uxue Barkos, Nafarroako Gobernuko lehendakariak, Nafarroako Parlamentuan hitz egin zuen atzo.

42.- Batzuk zenbatzaile plurala, zein esalditan erabili da zuzen?

a) Unibertsitateko irakasle batzuek doktoreak dira.

b) Gidari batzuk uste dute bidea beraiena bakarrik dela.

c) Gazte batzuez marmarka aritu zen bileran Ane.

d) Bizilagun gutxi batzu etorri ziren bilerara herenegun.

43.- Ondoko esaldi hauetako bat EZ da egokia. Zein ?

a) Zuri jarraikiz iritsi dira mendi gailurrera.

b) Joxe lanean jarraikia da eta fedean kartsua.

c) Ebaluazio jarraia egiten dute ikastetxe horretan.

d) Nik bideari jarraitu diot.

44.- Adiera bat baino gehiago du *burutu* aditzak. Zein hartuko genuke kalko moduan?

a) Gure herrian burutu berri diren ekintzak ez dira egunerokoak.

b) Azak ederki burutzen dira eguteran dugun baratzean.

c) Azkenean burutu dugu lana. Bazen garaia!

d) Abenduan hasi eta ekainerako burutu nahi dugu oposizioa.

45.- Esaldi hauetako bat okerra da. Zein?

a) Gutxi iruditu zait bankuan eskaini didaten % 6a.

b) Erregaiaren prezioak % 6an igo dira.

c) Erregai-andela % 1ean nuen gasolindegira iritsi nintzenean.

d) Irabazien % 25 kentzen dit urtero Ogasunak.

46.- Izen berezi batzuen bukaerako -a batzuetan itsatsia da eta beste batzuetan artikulua. Zein izen-sortatan da artikulua?

a) Bertizarana - Errenteria - Ordizia.

b) Otsagabia - Iruñea - Mendigorria.

c) Donostia - Nafarroa - Leitza.

d) Garaioa - Getaria - Atarrabia.

47.- Nafarroako leku-izen ofizial batzuetan zehar-marra ageri da. Zein dago oker idatzia?

a) Estella / Lizarra.

b) Doneztebe / Santesteban.

c) Dorrao / Torrano.

d) Urdazubi / Urdax.

48.- Nafarroako leku-izen ofizial batzuetan marratxoa ageri da. Zein dago zuzen idatzia?

a) Uharte-Arakil.

b) Doneztebe-Santesteban.

c) Beintza-Labaien.

d) Espartza-Zaraitzu.

49.- *Nafarroako Toponimia Ofiziala* datu-basean, zer informazio mota ematen da?

a) Geografikoa, linguistikoa, soziologikoa eta etimologikoa.

b) Etimologikoa, soziolinguistikoa, geografikoa eta linguistikoa.

c) Dokumentala, geografikoa, fonetikoa eta linguistikoa.

d) Linguistikoa, etimologikoa, dokumentala eta geografikoa.

50.- VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren zer ehuneko da erdaldun elebakarra?

a) % 42,6

b) % 58,9

c) % 76,7

d) % 85,2

51.- Xabier Erizeren *Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa 1863-1936* lanak berritasun bat ekarri zuen. Zein?

a) Ikertu zuen nola hedatu zen gaztelania Iruñetik Nafarroa euskaldunera.

b) Euskararen galeraren analisi diakronikoa eta sinkronikoa uztartu zituen.

c) Euskararen biziraupena hartu zuen aztergai nagusitzat.

d) Foruen galeragatik ondoko hamarkadetan izan zen galera xeheki aztertu zuen.

52.- Zer da idiolektoa?

a) Norbanakoen hizkuntza aldaera da, hiztun bakoitzaren hizkera.

b) Dialekto soziala, gizatalde jakin baten aldaera linguistikoa.

c) Berezko sistema lexiko, morfosintaktiko eta fonetikoa duen hizkuntza aldaera.

d) Lanbide jakin bati dagokion aldaera linguistikoa.

53.- Minorizazio egoeran dagoen hizkuntza bat egoera horretatik atera eta gizarte esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua. Zeren definizioa da?

a) Hizkuntza gatazka.

b) Hizkuntza normalizazioa.

c) Hizkuntza ordezkapena.

d) Hizkuntzaren jarraipena.

54.- Nafarroako Kontuen Ganberak nola du izena gaztelaniaz?

a) Cámara de Contos de Navarra.

b) Cámara de Comptos de Navarra.

c) Cámara de Cuentas de Navarra.

d) Cámara Contable de Navarra.

55.- Zein da gaztelaniazko *óbice* hitzaren euskarazko ordaina?

a) eragozpena

b) kaltea

c) eragilea

d) adierazlea

56.- Zein da euskarazko *isurpen* hitzaren ordaina gaztelaniaz?

a) liquidación

b) incoación

c) caducidad

d) vertido

57.- Beheko testuaren itzulpen zuzena hauta ezazu.

Estatutuez eta elkarteko gobernu zein ordezkaritza organoek hartutako erabaki baliozkoez gain, subsidiarioki eta estatutu hauetan aurreikusten ez den guztian, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa aplikatuko da.

a) Con carácter subsidiario de los Estatutos y de los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno y de representación, en todo cuanto no esté previsto en los presentes Estatutos se aplicará la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de mayo, reguladora del Derecho de Asociación.

b) Con carácter subsidiario de los Estatutos y de los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno y de representación, en todo cuanto no esté previsto en los presentes Estatutos se aplicará la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.

c) Con carácter subsidiario de los Estatutos y de los acuerdos adoptados por sus órganos de gobierno y de representación, en todo cuanto no esté previsto en los presentes Estatutos se aplicarán la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación y demás disposiciones de desarrollo.

d) Con carácter subsidiario de los Estatutos y de los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno, en todo cuanto no esté previsto en los presentes Estatutos se aplicarán la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación y demás disposiciones de desarrollo.

58.- Beheko testuaren itzulpen zuzenena hauta ezazu.

A pesar de las quejas, desde enero se reducirá la periodicidad de las inspecciones.

a) Urtarriletik aitzina, maizago eginen dituzte ikuskapenak, kexak jaso arren.

b) Urtarriletik aitzina, maizago eginen dituzte ikuskapenak, kexarik ez jasotzearren.

c) Urtarriletik aitzina, ikuskapenak ez dituzte orain bezain maiz eginen, kexak jaso arren.

d) Urtarriletik aitzina, ikuskapenak ez dituzte orain bezain maiz eginen, kexarik ez jasotzearren.

59.- Según la RAE, ¿cuál de estas frases es incorrecta?

a) Usted es una de los alumnos más brillantes de que goza la Facultad.

b) El ascensor se paró entre el quinto y sexto piso.

c) La indispensable vigilancia y control nocturnos brillan por su ausencia.

d) Leí el primero y segundo capítulos de la novela.

60.- ¿Cuál de las siguientes frases es correcta?

a) Cada estuche contiene 15 ó 18 trufas.

b) ¿Cómo te gusta el te? ¿Con azúcar o sin él?

c) El cantante suele desentonar cuando llega al sí bemol.

d) Ni aun los que nos conocen vienen a visitarnos.

61.- ¿Cuál de las siguientes frases es correcta?

a) Me alegro que hayáis venido.

b) Podrás jugar una vez de que termines los deberes.

c) Me fijé que tenía manchas en la cara.

d) Me olvidé de que tenía que ir al dentista.

62.- Indica cuál de las siguientes expresiones es incorrecta:

a) El mismo agua

b) Esta aula

c) Ningún hacha

d) Toda el área

63.- Indica cuál de las siguientes frases es correcta:

a) Debatieron acaloradamente entorno al porqué del descenso demográfico y del envejecimiento de la población.

b) A parte de que ofrecieron una imagen deplorable, la discusión no sirvió sino para ahondar las obvias diferencias ideológicas.

c) Asimismo, fue patente el sinsentido de este formato de debate, donde cada cual expone sus planteamientos sin escuchar los del resto.

d) Conque habrá que plantearse por que se organizan este tipo de programas y sino sería mejor repensar su formato.

64.- La palabra *veinteavo* es:

a) un numeral cardinal.

b) un numeral ordinal.

c) un numeral fraccionario.

d) un numeral multiplicativo.

65.- ¿Cuáles son los tiempos verbales simples del modo subjuntivo en la lengua española?

a) Presente, pretérito perfecto simple, pretérito imperfecto y futuro simple.

b) Presente, pretérito imperfecto, futuro simple y condicional.

c) Presente, pretérito perfecto simple, pretérito pluscuamperfecto.

d) Presente, pretérito imperfecto y futuro simple.

66.- Zer EZ du esaten Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak?

a) Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira.

b) Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala; euskarak ere izaera ofiziala izanen du Nafarroako euskal eremuetan.

c) Foru lege batek zehaztuko ditu Nafarroako euskal eremuak, eta euskararen erabilera ofiziala arautuko du.

d) Foru lege batek arautuko du euskararen irakaskuntza, Estatuko araudi orokorraren esparruaren barnean.

67.- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren babesa izateko, zer baldintza bete behar dute estatu sinatzaileetako gehiengo-hizkuntza ez direnek?

a) Koofizialak izatea.

b) Eremu geografiko jakinetara mugatzea.

c) 3.000.000 hiztun baino gutxiago izatea.

d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

68.- Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoaren ardatzak dira, besteak beste:

a) Prestigioa eta erakargarritasuna; gazteria; eta zerbitzu publikoak.

b) Gizarte erabilera; zerbitzu publikoak; eta ekonomia eragilea.

c) Hezkuntza; prestigioa eta erakargarritasuna; eta hiztun berriak.

d) Transmisioa; hizkuntza esparrua; eta Euskarabidearen barne kudeaketa.

69.- Zer EZ du esaten Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak?:

a) Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

b) "Nafarroako Aldizkari Ofiziala" eta "Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala" gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko dira, edizio bakarrean baturik.

c) Ikasketa plan ofizialek euskara Nafarroako kultura ondaretzat hartuko dute eta foru lege honen xedeei egokituko zaizkie.

d) Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute.

70.- Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen ezinbesteko helburuak hiru dira. Hauetako bat EZ da. Zein?

a) Botere publikoek hizkuntza araua zernahi jarduketatan errespetatzea.

b) Herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea babesteko tresnak ezartzea.

c) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratu eta haren erabilera sustatzea.

d) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

71.- Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla erraten da lege-arau batean. Zeinetan?

a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoan.

b) 1978ko Espainiako Konstituzioan.

c) Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legean.

d) Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legean.

72.- Nafarroako Aldizkari Ofiziala, gaur egun, honela argitaratzen da:

a) Ele biko edizio bakarrean: ezkerreko zutabea gaztelaniazkoa eta eskuinekoa euskarazkoa.

b) Bi edizio bereizitan: bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa. Nolanahi ere, euskarazkoan eduki batzuk gaztelaniaz argitaratzen dira.

c) Bi edizio bereizitan: bata erabat gaztelaniazkoa eta bestea erabat euskarazkoa.

d) Bi edizio bereizitan: bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa, baina eremu ez-euskaldunerako iragarkiak gaztelania hutsean argitaratzen dira.

73.- Nafarroako hezkuntza sistemako hizkuntza ereduak:

a) Eremu euskaldunean nahitaezkoa da euskararen irakaskuntza eta, beraz, soilik B eta D ereduak baimentzen dira.

b) A ereduan, euskara nahitaezko irakasgai bezala ematen da Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta aukerako irakasgai gisa Bigarren Hezkuntzatik aurrera.

c) G eredua eremu mistoan zein eremu ez-euskaldunean baimentzen da.

d) D eredua eremu euskaldunean eta mistoan bakarrik baimentzen da.

74.- Zein urtetan sortu zen Vianako Printzea Erakundean euskara bizkortzeko saila?

a) 1869

b) 1933

c) 1986

d) 1957

75.- 1918tik 1919ra bitartean eratu zen Euskaltzaindia. Zein izan ziren haren lehen lau kideak?

a) Resurreccion Maria Azkue, Luis Eleizalde, Julio Urkixo eta Arturo Campion.

b) Toribio Altzaga, Jose Maria Satrustegi, Damaso Intza eta Txomin Agirre.

c) Koldo Mitxelena, Txillardegi, Julio Urkixo eta Resurreccion Maria Azkue.

d) Arturo Campion, Txillardegi, Resurreccion Maria Azkue eta Pierre Broussain.

76.- Nork idatzi zuen *Diccionario Vasco-Español-Francés* lana?

a) Koldo Mitxelenak.

b) Resurreccion Maria Azkuek.

c) Luis Villasantek.

d) Piarres Lafittek.

77.- Peio Monteanoren *El iceberg navarro, Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI* lanean egiaztatzen da mende horretan:

a) Nafarroako administrazioa elebakarra zela.

b) Nafarroako administrazioan euskararen erabilera eskualdeka bereizten zela.

c) Nafarroako administrazioko eskribauak euskaldunak zirela eta maiz itzultzaile lana egiten zutela.

d) Konkistaren ondoren Gaztelak debekatu egin zuela agiri ofizialetan euskara erabiltzea.

78.- Euskaltzaindiak, 57. arauan, euskalkien izenak arautu zituen, besteak beste:

a) Bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, goi-nafarrera eta zuberera.

b) Bizkaiera, behe-nafarrera, nafar-lapurtera, zuberera eta gipuzkera.

c) Lapurtera, bizkaiera, gipuzkera, Arabako euskara eta aezkera.

d) Gipuzkera, mendebaldeko euskara, goi-nafarrera, Arabako euskara eta zuberera.

79.- Resurreccion Maria Azkuek euskalkitzat hartu zuen hizkera hau:

a) nafar-lapurtera

b) erronkariera

c) iparraldeko goi-nafarrera

d) ekialdeko behe-nafarrera

80.- Zinpeko itzultzaile eta interpreteen gaineko esaldi hauetako bat okerra da. Zein?

a) Habilitazioa duten hizkuntza parean, norabide batean zein bestean egin dezakete lan.

b) Tarifa ofizialak daude finkatuta zinpeko itzulpen eta interpretazio lanetarako.

c) Zinpeko itzulpenak ezin dira posta elektronikoz edo faxez entregatu, itzultzailearen sinadura eta zigilu originalak eraman behar dituztelako.

d) Ez dagokie agiri originalen autentikotasuna ziurtatzea; itzulpena egitera mugatzen dira.